

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3213

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 29koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinarekin erabakitzen baita jendaurrean jartzea CE Mina Esther 1.893 zk. delakoaren Ustiapen-proiektua, Zaharberritze-plana eta Ingurumen-inpaktuaren Azterlana; ustiapen hori Arraia-Maetzun (Araba) kokatua dago, eta Eusebio Echave, S.A. (ECHASA) sozietateak sustatua da; eta izapide horren helburu hau da: CE Mina Esther 1.893 zk. delakoaren lehen zatiaren, hau da. «1. Esther Fraccion» izenekoaren lehen luzapena lortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoa betez, lege horren I. eranskinean jasota dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu nahi diren planek eta proiektuek –publikoak zein pribatuak– ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura bete behar dute, nahitaez.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzan, ondoren zehaztutakoaren ustiapen-proiektua, zaharberritze-plana eta ingurumen-inpaktuaren Azterlana banan-banako ebaluatzeko izapidea abiarazi da: CE Mina Esther 1.893 zk delakoaren lehen zatiaren, hau da, «1. Esther Fraccion» izeneko, Arraia-Maetzun (Araba) kokatua eta Eusebio Echave, S.A. (ECHASA) sozietateak sustatua.

Proiektu hori, Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen Testu Bategina onesten duen urtarrilaren 11ko Legegintzako 1/2008 Errege Dekretuan jasota dago. Hori dela eta, legegintzako errege-dekretu horretan aurreikusitako ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura bete behar du. Beraz, 30 egunez jarri behar da jendaurrean, errege-dekretu horren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Ondorioz, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoarekin bat eginez, halaber, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita 30 egun balioduneko epean, jendaurrean jartzea ondoren zehaztutakoaren ustiapen-proiektua, zaharberritze-plana eta ingurumen-inpaktuaren azterlana: CE Mina Esther 1.893 zk. delakoaren lehen zatiaren, hau da, «1. Esther Fraccion» izeneko, Arraia-Maetzun (Araba) kokatua eta Eusebio Echave, S.A. (ECHASA) sozietateak sustatua. Horrela, nahi adina ohar, alegazio eta kontsulta egin ahal izango zaizkio proiektua baimentzeko prozesua ebazteko eskumena duen organoari, hau da, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzari (Donostia kalea 1, 5. solairua).

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, proiektuak, zaharberritze-planak eta ingurumen-inpaktuaren azterlanak osatutako espedientea Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzan egongo da (Donostia kalea 1, 5. solairua, Vitoria-Gasteiz).

Eta herritarrek, agiri horiek kontsultatu nahi izanez gero, eskura izan ditzaten, aipatu espedientea Arabako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Lurralde Bulegora ere bidaliko da –Samaniego kalea 2, 2 - 01008– Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 29a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.